

**EUROPAKO HIZKUNTZA ANIZTASUNAREN FOROA**
FORO EUROPEO DE LA DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA

2016-12-16 Palacio Kursaal 16-12-2016

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, UNESCO erakundeko arduradunok, jaun andreok, arratsalde on. Ongi etorri. Bienvenidas y bienvenidos al Foro de la Diversidad Lingüística de Europa.

Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburuaren ibilbidearen amaierara hurbiltzen ari gara. Egitasmoa errealitate bihurtuta ikusteko aukera izan dugu eta, gaur, kulturaren kateari jarraipena eman diogu Aarhus-eko eta Pafos-eko ordezkariekin batera.

“Elkarrekin bizitzeko kultura” zabaldu dugu. Horretarako, sorkuntza, gogoeta eta parte hartzea baliatuz. “Elkarbizitza eredu berri eta iraunkor bat sortzea” izan dugu helburu. Orain amaitzen ari garen Foroak, UNESCO Etxearekin lankidetzan antolatua, are gehiago hurbildu gaitu helburu horretara.

Aniztasuna da gure gizartearen oinarri oinarrizko ezaugarria. Toki garrantzitsua izan du hizkuntza aniztasunak Donostia 2016ren barruan. Hori babestuz eta sustatuz, sendotu eta bateratu egiten ditugu elkarbizitza eta gure gizarteak.

“Euskara, bizikidetzarako hizkuntza bizia” maiz erabiltzen dugun ideia da. Horrekin batera esango nuke, “elkarbizitzarako hizkuntza aniztasuna”. Izan ere, euskara da guk hizkuntza aniztasunari egiten diogun ekarpen propioa.

Euskara biziberritzeko ahaleaginean dihardugunok ongi ezagutzen dugu hizkuntza aniztasuna eta bizikidetzaren lotzen dituen sokaren sendotasuna. Sendoa delako hizkuntza aniztasunak hango eta hemengo gizartearen kohesioari egiten dion ekarria. Sendoa euskarak euskal gizarte anitzari egiten dion ekarpena eta ematen dion kolorea.

Halaxe da, baita ere, denon artean eraiki behar dugun Europa berri honetan. Sorreratik beretik egin dugu gurea euskaldunok Europa batuaren ideia: hasiera beretik eragile aktiboak izan gara Europa batuaren ideia hedatzeko lanean.

Gaur egun, ziurgabetasunez eta distantziaz beterik begiratzen dio Europako herritar askok Europari. Europak behar-beharrezkoa du nolabaiteko berpizkunde ilusionagarri bat. Horretarako beharrezkoa izango du herritarren buruak eta bihotzak irabaztea, eta horretarako beharko du Europak bere Herrien, kulturen eta hizkuntzen aniztasuna erdigunean jarri.

Europaren hizkuntza aniztasuna europar erakundeetan ofizialak diren 24 Estatu hizkuntzetatik harantzago doa. Badira gutxienez 50 milioi herritar europar, 24 hizkuntza horiek ez ezik beste hizkuntza batzuek ere bere dituztenak. Dozenaka hizkuntza, guztira. Hizkuntza horietako batzuk biziraupena dute jokoan. Beste batzuk bizi-indarra. Euskararen kasua da horietako bat.

Euskarak, gainbehera joatetik hazkunde bidea urratzera jauzi egin du azken hiru hamarraldiotan Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Hazi egin da. Gaur egun 860.000 euskaldun dago gure Erkidegoan. Euskarak ez du sekula hainbeste hitzun izan.

Euskal gizartearen meritua da, noski. Baina ezin gara patxada ederrean geratu. Behar dugu jarraitu hizkuntza eskubideak hobeto eta gehiago bermatzen. Eta, batez ere, behar dugu gero eta euskal herritar eta euskaldun gehiagoren bihotzak eta ezpainak euskararen sokarekin uztartzea.

Idea hauxe azpimarratu nahi dut Europako Hizkuntza Aniztasunaren Foroaren amaiera honetan: euskararen eta beste dozenaka europar hizkuntzen bizi-indarra areagotzea eta sendotzea bada helburu europarra. Beharrezkoa da beste hizkuntza politika europar bat. Europako hizkuntza guztiak, ez soilik 24 Estatu-hizkuntzak, aintzat hartuko dituen hizkuntza politika inklusiboa behar du Europako Batasunak.

Ez dira hutsetik abiatzen Europako instituzioak langintza horretan.

Hor dugu Europako Kontseiluaren Eremu Urriko Hizkuntzen Karta. Gaur goizean hemen aztergai izan duzuen.

Hor dugu Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Karta. Argi adierazten du, bere 22garren artikuluan, Europako Batasunak “kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen” dituela.

Hor dugu NPLD sarea. Jaurlaritzako presidentziaz lanean ari gara, Europako beste 13 gobernurekin eta 22 organismo social, erakunderekin eta unibertsitatekin batera, Europako hizkuntza aniztasuna sustatzeko.

Hizkuntza aniztasunaren iraunkortasuna bermatzeak, guztiok deitzen gaitu lanera eta lankidetzara. Denona behar dugun Europa eraikitzerakoan, denon hizkuntzak izan daitezen sakoneko batasunaren oinarri.

Gaur hemen, Europako Kultura Hiriburuan, UNESCOren Munduko Hizkuntzen Atlas berria egiteko proiektua aurkeztu da. Datozen hilabeteetan gorpuztuko da proiektu hori Atlas berri eta berritua bihurtuz. Munduan dira erreferentziazkoak UNESCO eta bere Hizkuntzen Atlasak.

Ziur naiz tresna eraginkorra izango dela Atlas berri eta berritua. Zorionak eta eskerrik asko!